

Zein lege-estatus komeniko litzaioke katalanari Katalunia independentean?

Estatu independentea gogoan, Katalunian hizkuntzek hartu beharreko lege-estatusaz eztabaida beroa dago. Koofizialak beharko al lukete katalanak eta gaztelaniak? Ala katalanak baino ez du izan behar ofizial? Eta ofizial adiera erabiltzea baino egokiagoa balitz nazional hitza?

| KIKE AMONARRIZ |

EKAINAREN 15EAN, *Les llengües en el nou Estat* (Hizkuntzak estatu berrian) gaiaren inguruko mahai-ingurua antolatu zuten CALEk (Coordinadora d'Associacions per la Llengua Catalana), Tallers per la Llengua eta katalanaren aldeko beste erakunde batzuek Sabadellen. Euskal Herrian ere ezagunak diren lau aditu izan ziren bertan: Carme Junyent, Jordi Solé i Camardons, Albert Pla Nualart eta Xavier Vila. Eztabaidarako galdera hauek proposatu zizkieten: Zein izan behar du katalanaren eta beste hizkuntzen lege-estatusak Katalunia independentean? Estatu propioak lagunduko al du katalana normalizatzen? Zer nolako ondorioak izan ditzake Kataluniaren independentziak, beste herrialde katalanetan?

David Vila antolatzaileak, honela laburbildu du han esandakoa: "Adostasun zabala agertu zen aitortzerakoan katalanaren eta espainolaren koofizialtasunak ez lukeela ahalbidetuko katalanaren normalizazio osoa. Baita, hobe litzatekeela katalanarentzat, 'hizkuntza ofiziala' ez den beste izendapen alternatiboren bat erabiltzea, hala nola hizkuntza nazionala, berezkoa edo komuna".

Balizko estatu independentean, katalanak, gaztelaniak eta beste hizkuntzek izan beharko luketen lege-estatusaren inguruko eztabaida



WWW.ROBERTOAGUSTOBLOG.COM

puri-purian dago Kataluniako gizartean, eta ekainaren 15koa, eztabaida horren beste agerpide bat izan zen. Vilak berak bere blogean dioen bezala, paradoxa bat ari da gertatzen: identitate katalanaren eta katalan hizkuntzaren defentsa egon da beti abertzaletasunaren eta independentismoaren oinarrian; baina une honetan batzuentzat, hizkuntza, independentzia lortzeko behar den gehiengora iristeko oztopo bihur daiteke. Batzuen ustez, katalana hizkuntza ofizial bakarra izango dela esateak, erdaldunen botoa

uxa dezake; besteen ustez, aldiz, bi hizkuntzak ofizial bihurtzeak hizkuntza normalizazioa oztopa dezake. Eta tartean, iritzi asko.

Euskal Herritik begiratuta eztabaida oso interesgarria bada ere, ezin dugu ahaztu katalanaren eta euskararen egoerak oso desberdinak direla:

- Katalanak 9 milioitik gora hiztun ditu. European hiztun gehien dituen hizkuntzetako bat da.
- Bere eremu linguistikoak, Katalunia, Ipar Katalunia, Aragoiko zati

bat, Valentzia, Balear uharteak, Andorra eta Sardiniako Alguer hiria hartzen ditu.

- Katalunian bertan, %95ek ulertzen du eta ia %80 hitz egiteko gai da.

- Katalunian ez da egon erdaldundutako zonalderik eta ezagupen mailak nahikoa homogeneoak dira lau probintzietan.

- Frantsesa eta espainola bezala, hizkuntza erromanikoa izanda, distantzia linguistikoa txikia du haiekiko, eta herrialde katalanetan bizi diren gehienek ulertzen dute.

- Euskararen eta katalanaren egoera minorizatua eta gaur egungo lege-estatusa izan daitezke bi hizkuntzen arteko antzekotasunik handienak.

Eztabaida, ordea, ez da berria. Iaztik dator. Eta hobeto uler dezagun, esan behar da parte hartzen ari diren ia guztiak independentziaren eta katalanaren normalizazioaren aldekoak direla. Ondoko lerrootan, eztabaidaren ikuspegi orokor eta laburra emango dugu, nahiz eta jakin, aspektu, ñabardura, izen eta proposamen asko kanpoan gelditu direla.

2012ko hasieran Eduard Voltas kazetariak *La tribu o l'estat* (tribua edo estatua) eta *En castellà també, sí-plau* artikulua idatzi zituen *Ara* egunkarian, Kataluniako estatu independentean gaztelaniak eta katalanak, biek, ofizialak izan behar zutela defendatuz, gizarte katalanaren identitateen arteko zatiketak gainditu ahal izateko. Iritzi honekin bat etorri diren artean ditugu Albert Branchadell edo Xavier Vila. Miquel Gilek Racó Catalan postkatalanismoa hartzen duen joera honek, gaztelania eta espainiar sentitzen diren elementu identitarioak integraztearen alde egiten du, beti ere, katalanaren normalizazio osoa defendatuz. Esquerren eremu politikoan kokatzen den Voltasek, gaiaren inguruan hilabete honetan argitaratu duen azken artikuluan ere *Ho veig diferent, Carmen*, ideia horiek defendatzen ditu, bere joera paternalistat hartzen duen eta espainolaren ofizialtasunaren aurka agertzen den etorkin asturiar bati erantzunez



Espainolaren ofizialtasunaren kontrako iritziak berehala agertu ziren, ordea. Gabriel Bibiloni soziolinguistak, esate baterako, oinarritzko hiru ideia hauek defendatzen ditu: katalanak izan behar du estatuaren hizkuntza ofizial bakarra; espainola eta Katalunian hitz egiten diren beste hizkuntzak errespetatu eta zaindu egin behar dira, baina ez da beren ezagupena inposatu behar, eta katalanak izan behar du gizarte kohesiorako hizkuntza komuna. Bere ustez, hiz-

Iritzi zaparrada



Eztabaidaren kronologia eta ekarpen guztiak biltzen dituen webgunea aurkituko duzu irudi hau mugikorrez eskaneatuta.

kuntza nazional indartsurik gabeko gizarte batek ezingo luke ekidin populazioaren zati batzuk erdaldun elebakar izaten jarraitzea eta horrek gatazkak eragingo lituzke etorkizunear, espainolak ofizial izaten jarraituko balu, hizkuntza ordezkapenak ere jarraitu egingo lukeelako. Halaxe idatzi zuen Albert Pla i Nualartek iazko martxoan *Hartzaren besarkada* artikuluan: “Katalana hizkuntza komun eta nazional gisa harturik bakarrik lortuko dira gizarte kohesioa eta demokrazia parte-hartzaile erreala”. Andreu Barnillsek, *Vilaweben*, eredu elebidunaren ordezkari, eleaniztasunaren kudeaketa publiko, bizkor, malgu eta integraztailea proposatzen zuen, Kataluniak Europari egin diezaiokeen ekarpenik garrantzitsuena bezala.

Juan Carlos Moreno Cabrera ere aukera honen aurka azaldu da.

Eztabaidan gehiegi sartu ez badira ere, Artur Mas presidentea, ERCko Oriol Junqueras edo ICVko Joan Herrera, Voltasen tesien alde agertu dira, esanez estatu independentean katalana eta gaztelania ofizialak izango lirakeela, zatiketa eta liskarrak ekiditeko eta denek hizkuntza eskubideak errespetatzeko. Katalana hizkuntza ofizial bakarra izatearen alde egin du, aldiz, Silko Toni Strubellek.

Tartean, bestelako aukera batzuk ere azaldu dira:

Miquel Strubell hizkuntza politikako idazkari ohiaren ustez “koofizial” hitza engainagarria gerta daiteke, katalanak eta espainolak lege-maila bera baldin badute, katalanak galtzeko guztiak izango dituelako. Koofizialtasuna defendatzeko bi alderdi hauek darabiltzaten argudioak kritikatzeko dituzte eta hauxe proposatzen du: ez du derrigorrezkotzat jotzen hizkuntza ofizialik egotea; bai ordea, hizkuntza nazional bat, eta hizkuntza eskubideen legeko babes beste guztiak. Posizio beretsua agertu du Salvador Cardús soziologoak.

Vicent Partal, *Vilawebeko* zuzendaria ere, gaztelaniaren ofizialtasunaren aurka azaldu da eta berak ere, hizkuntza ofizialik ez izatea proposatu du eta erakunde bakoitzak bere errealitate soziolinguistikora egokitutako legeria garatzea proposatu du. Esate baterako, amazigh etorkinen proportzio handia dagoen udalerrri batean hizkuntza honi ere ofizialtasun maila bat emanez.

Bernat Joan ERCren europarlamentari ohiak, ofizialtasun asimetrikoa edo erritmo desberdinetako ofizialtasuna defendatu du: katalanak lehentasunezko hizkuntza nazionala izan behar du estatu berrian, eta beraz ofiziala. Aranen okzitanoa. Eta espainola eta ingeleza ofizialak izan litezke baina neurri apalagoan.

Lehen esan bezala, Euskal Herritik arretaz jarraitu beharreko eztabaida. ■

